

SAN BIZENTE, 068-072 / SAN MARTIN HILOBIA



Hilobiaren irudia

Kokapen-planoa

<i>Kokapena</i>	San Bizente, 068-072 / San Martin.
<i>Espedientea</i>	187-2.
<i>Obra-zuzendaria</i>	Manuel Echave, arkitektoa.
<i>Egilea</i>	Ez da zehaztu espedientean.
<i>Sustatzailea</i>	Rocaverdeko markesa.
<i>Kronologia</i>	1882-01-30/1883-01-1 Echavek jartzeko baimena eskatu zuen.
<i>Ehorzketa-mota</i>	Hilobia. Bi kaletara ematen duten eta burualdea partekatzen duten bi hilarri. Bornatua.
<i>Materiala</i>	Hareharria. Marmola. Arbela. Burdina.
<i>Kontserbazio-egoera</i>	Erremateko orratzaren zati bat libratu egin da.
<i>Pertsona garrantzitsua 1</i>	Rocaverdeko markesaren titulua, Karlos II.ak 1699an José-Francisco Moyúa, Ubilla, Vidaurre y Muniveri emandako. Hasiera batean Vidaurreko markesa izan zen eta 1701ean bihurtu zen Rocaverdekoa. Leonardo Moyúa, VI. markesa, politikaria eta musikaria, zinegotzi 1904-5 aldian eta alkate 1905-9 aldian, hau da, 'Belle Epoque' garai bete-betean eta hiria edertu zen garaian.
<i>Arkitektura</i>	Neogotikoa.
<i>Eskultura</i>	Orratz-dorre gotikoa, berezkoak dituen ezaugarriekin.
<i>Beirateak eta forja</i>	Monumentuaren estiloarekin bat datozen arku zorrotz eta gingil anitzeko motiboz hornitutako burdin sarea. Horma-atalean gurutzea zirkuluarekin konbinatu da lemaren irudia sortuz, gidatzen gaituen elementua.
<i>Beste batzuk</i>	Duela gutxi jarri da grafia gotikoa duen plaka bat -arbel gisakoa-.
<i>Babes-maila</i>	Berezia.